

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER PRADOS OTAMENDI
NEREA YEREGUI BALDA

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko urriaren 29an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-09-30EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2025-09-30eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Laura Huarte

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko irailaren 26an, 62/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko udaletxeko 1. Solairuko 106. Gela erabiltzeko baimena ematea astearteetan 15:30etatik 18:00etara euskara klaseak emateko.

2.- Ainhoa Beraza

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko irailaren 26an, 63/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko udaletxea erabiltzeko baimena ematea urriaren 18an gaztetxoendako ihesgela egiteko.

3. Izar hautsa proiektua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko irailaren 26an, 64/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Nafarroako landa eremuan kultur jarduera sustatzeko udalek antolatzen dituzten proiektuak finantzatzeko 2025eko dirulaguntzen deialdian eskaera aurkeztea "Izar Hautsa-kultura, komunitate eta ondarearen gauak" izeneko proiektua dela eta.

4. Basalan Arrospide SL

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 1ean, 65/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 2. Poligonoko 380, 641, 201, 152 155. Lursailen baso aprobetxamendua dela eta, Basalan Arrospide SLri baimena ematea mendi pistak eta auzo bideak erabiltzeko kamioiekin igarotzeko.

5. Matias Novarino

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 3an, 66/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Matias Fernando Novarino jaunari Beteluko 2. Poligonoko 693. Lurzatian 40 erlauntza jartzeko baimena ematea.

6. Juan Manuel Garaikoetxea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 3an, 67/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Juan Manuel Garaikoetxea Lopetegiri Beteluko 1. Poligonoko 61. Lursailean dagoen eraikinaren teilatua berritzeko baimena ematea.

7. Serafin Fernandez

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 8an, 68/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Serafin Fernandezi azarotik martxorako asteburuetan herriko plazan txurreria jartzeko baimena ematea.

8. Maddi Sotil

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 9an, 69/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Maddi Sotili Beteluko udaletxeko 1. Solairuko oihukako gela erabiltzeko baimena ematea urriaren 13ko 18:00etarako, guraso elkarteko bilera egiteko.

9. Juan Antonio López Valles

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 10ean, 70/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Juan Antonio Lopez Vallesi eta María Angeles Larralde Ochotorenari Beteluko 2. Poligonoko 389. Lursailetik 70,38 metro karratu bereizteko baimena ematea.

10. Aitor Arribillaga

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 14an, 71/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Aitor Arribillagari Beteluko hilerrian errautsak lurperatzeko eta oroitarria berritzeko baimena ematea.

11. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 16an, 72/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko irailaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak eta akordioak ordaintzea.

12. Juan Manuel Garmendi

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 16an, 73/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Baimena ematea Juan Manuel Garmendia Goikoetxea jaunari Betelun 2 behi-bururentzako etxeko abeltzaintza instalazioa jartzeko Beteluko 1. Poligonoko 93. lursailean.

13. Musika eskola

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 23an, 74/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ane Etxeberria Arguiñarenari indianoetxeako gelak erabiltzeko baimena ematea musika entseguak egiteko.

14. Musika eskola

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 27an, 75/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Maia Etxeberria Sotili indianoetxeako gelak erabiltzeko baimena ematea musika entseguak egiteko.

3. AEROTERMIAREN INSTALAKUNTZA PROIEKTUARENDako DIRULAGUNTZA ESKAERAREN ONARPENA

Beteluko Udalak "Aerotermiaren instalakuntza" izeneko proiektua egiteko asmoa dauka. Horren arabera, aeroterminia instalakuntza jarriko litzateke Araxes eskualdeko eskola publikoaren frontoi kanpoaldean eta bertan lortutako energiarekin, eskola publikoko eta frontoiko ura berotu eta kalefakzioa hornituko litzateke. Modu berean, energia berriztagarriei buruzko jardunaldiak ere eginen dira.

Proiektu horrek ekarriko lituzkeen gastuak finantzatzeko, Beteluko Udalak asmoa du PGTEak gauza ditzaten (Leader-2023-2027 NPEPE) sustatzaile publiko eta pribatuei laguntzak emateko 2025eko deialdian dirulaguntza eskaera egitea

Hau dena ikusita, Beteluko udalbatzak ERABAKI DU:

Lehenengoa: "Aeroterminia instalakuntza" izeneko proiektuarendako PGTEak gauza ditzaten (Leader-2023-2027 NPEPE) sustatzaile publiko eta pribatuei laguntzak emateko 2025eko deialdian dirulaguntza eskaera egitea.

Bigarrena: Akordio hau dirulaguntza eskaera egiteko dokumentazioan eranstea.

Akordia, Batzarrera etorritako guztiek, aho batez, onartu dute.

4. 2026. URTERAKO KARGA TASAK

Batzarrari ondoko akordioa onartzea proposatzen zaio:

1. Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legearen 12 eta 13. artikuluetan eta Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legearen 325 eta hurrengo artikuluetan zehaztutakoaren arabera, ondoko karga tasa hauek onartu dira 2026. urterako.

1.1. Lur-ondasunen gaineko kontribuzioa: karga tasa: %0,320

1.2. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: karga tasa: %3,5.

1.3. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: udalaren gutxieneko indizea:

-Hiriguneko jarduerak: udalaren gutxieneko indizea; 1,26.

-Hirigunetik kanpoko jarduerak: udalaren gutxieneko indizea; 1,20.

1.4. Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga: Onestea koefizienteak, aplikatzekoak direnak lurraren balioaren gainean sortzapenaren unean, eta balio-gehikuntzaren sortzealdia kontuan hartuta. Horiek izanen dira 2/1995 Foru Legearen 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak.

Karga-tasari dagokionez, balio-gehikuntzaren sortzealdi guztietan karga-tasa bakarra ezartzea: %18.

1.5. Haurtzaindegia zerbitzuko tasa, haur bakoitzeko hilabetean. (Aplikatu dira Nafarroako Gobernuak haur hezkuntzako ikastetxeetarako onetsitako tarifak)

2. Erabaki honek 2026. urteko urtarilaren batean hartuko du indarra.

3. Erabaki honen aurka, ondoko errekursoetako bat aurkez daiteke: a) Berraztertze errekursoa egintza hau egin duen organoari, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita; b) Administrazioarekiko auzi-errekursoa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan edo Epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita; c) Gora jotzeko errekursoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta batzarrak aho batez onartu egin du.

5. 2026. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK

Ez zaio Udalbatzari ordenantza fiskalen inongo aldaketarik proposatu.

6. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Wikai	F. 1/23495	112,10 €
Idm medical	F. 1822	131,07 €
Iberdrola	F. Urberoa	7,99 €
Diegaby Hostal SL	F. 60 barnizatzeko hamaiketakoa	17,30 €
Diegaby Hostal SL	F. 54 presa jarri ta gero hamaiketakoa	117,70 €
Araizko Udala	Datu basea gastuen banaketa 2024	765,10 €
Araizko Udala	Ikasleen irteera gastuen banaketa 2024	505,60 €
Araizko Udala	ETB antena gastuen banaketa 2024	176,86 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua iraila	324,45 €
Goiener	F. Udaletxea iraila	346,85 €
Goiener	F. Eskola iraila	726,68 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	638,47 €
Jose Manuel Cruz Liciaga	F. 25.45	12.067,59 €
Ekilan	F. 35632	1.309,62 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua	11,54 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. irailako mugikortasuna	122,60 €
Codisna	F. 25.576	776,09 €
Animsa	F. SCA 598	1.264,62 €
Serlimpia	F. 250626	225,06 €
Baiza Motor	F. I25/2744	2.046,13 €
Rodriguezpeleta	F. 2025/39	4.139,59 €
Rodriguezpeleta	F. 2025/40	6.360 €
Rodriguezpeleta	F. 2025/41	5.300 €
Vodafone	F. urriko kontsumoa	212 €
Ofico	F. F254148	130,73 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Hermex ibérica	F.115980	89,46 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Sorgintxo iraila janaria	68,10 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Sorgintxo iraila garbiketa	18,20 €
Maite harategia	F. iraila	291,20 €
Amaia Lardies	F. mantalak (kutxatik ordainduta)	56 €
Ehunduz jantziak	F. mantalak (kutxatik ordainduta)	45,49 €
Muropapel	F.2727	224,90 €
Seikide	F. 2119	206,91 €
DENETARA:		38.836,00 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

7. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak laurden gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.